

**Jesus Mari
Arizmendi**

Lemoizko
alkategaia

ehbildu

**Maite
duzun
Lemoiz**

EGINGO DUGU.

Maite duzun Lemoiz

Lemoizek behar dauen aldaketarako prest



EGINGO DUGU.

Udal hauteskundeak aukera bat dira bide barriak eraikitzeke eta egindakoetan sakontzeko. Azken lau urteotan lana ilusinoz eta arduraz egin dogu, proposamenak egiten, beste batzuk hobetzen, frustrazinoak gainditzen, udalaren funtzionamentuan izan diran arazoak ulertzen, beti bere adostasuna bilatzen. Horren adibide izan dira Armintzan aparkatzeko araudia, zerga ordenantzen aldaketak eta autobus zerbitzua hobetzeko eskaera. Bestalde, atzera bota deuskuezan proposamenen artean egon dira: udan Armintzako aparkamendu araudia betearazoteko langileen kontratazino partziala, Kofradia barria egiteko arau subsidiarioen aldaketaren eta Armintzako aparkalekuaren kokapenaren aukera guztiak modu garden eta parte- hartzailean aztertzea, komun publikoak jartzea, Kultur Etxeko langilea lan-boltsaren bidez ordezkatzeta, rokodromoa jartzea, inausketa hondakinak jasotzeko neurriak hartzea eta herriko ingurumenaren egoeraren azterketea egitea, besteak beste.

Orain lau urte lez, oraingoan bere gure helburu nagusia udalean behar egiteko modua aldatzea da. Erabagiak hartu

*Ilusinoz eta arduraz ibili
gara, proposamenak egiten,
beste batzuk hobetzen,
frustrazinoak gainditzen,
udalaren funtzionamentuan
izan diran arazoak ulertzen,
beti bere adostasuna
bilatzen*

aurretik udal talde politikoen arteko alkarlana egon behar da eta herritarren parte- hartzea bilatu behar da. Gobernantza kooperatiborantz pausuak emon behar doguz. Orain lau urte hauteskundeak irabazteko puntuan izan ginan, eta oraingoan, zuon bultzadeagaz, ziur gagoz irabazi geinkela, gu geu garalako aldaketa hori gauzatzeko aukera bakarra.

Tras cuatro años de trabajo responsable, presentando y mejorando propuestas y buscando acuerdos, volvemos a presentarnos con el objetivo de ganar las elecciones municipales para cambiar la forma de hacer las cosas, fomentando la colaboración entre los grupos municipales y la participación de la ciudadanía para que todos y todas nos sintamos ayuntamiento. En definitiva, dando pasos hacia una gobernanza cooperativa. Y la nuestra es la única opción para ese cambio.

Maite duzun Lemoiz



Gure *taldea*

🌐 ehbildu.eus/herriak/lemoiz/albisteak ✉ lemoiz@ehbildu.eus



- 1 Jesus Mari Arizmendi Bastarrika
- 2 Janire Muñoz Egaña
- 3 Jose Antonio Robalo Gonçalves
- 4 Bego Moratalla López
- 5 Endika Albizu Rodriguez
- 6 Amaia Cayero Garay
- 7 Xabi Agirre Urriaga
- 8 Iratxe Azkue Reinales
- 9 Maider San Martin Ouro
- 10 Eider Etxabe Igartua
- 11 Urtza Uranga Kortina
- 12 Iker de Aldamiz-Echevarria Ausin

Taldearen indarrean sinesten dogu. Ideiak txirikordatuz eta personak batuz bide barriak urratu geinkez. Horregaitik, bildu gara hautagaitza honetan jatorri, ogibide, auzo, genero eta bizipen desbardinetako personak. Badira baina batzen gaituezan osagarriak, danok irudikatzen dogu Lemoiz anitzagoa, egiteko moduetan barritzailea, parte-hartzaileagoa, eskubideetan bardinzaleagoa, adin desbardinetako personen arteko auzolana sustatuko dauena, euskaldunagoa eta jasangarriagoa. Hautagaitza honetako kideok bide horretan pausuak emoteko prest gagoz.

Bidea alkarregaz eginez herria eraiki

GINARRIZKOA DA UDALAREN LAN EGITEKO MODUA ALDATZEA, TALDE POLITIKOEN ARTEKO ALKARLANA SUSTATUTA ETA HERRITARREN INPLIKAZINO BILATUTA. GOBERNANTZA KOOPERATIBOA IZAN BEHAR DA GURE EGITEKO MODUA, ADMINISTRAZINO ETA HERRITARRAK BATZEN DABEZAN ERABAGIGUNEAK ERAIKIZ. BIDE HORRETAN PAUSUAK EMONGO DOGUZ HASIERA-HASIERATIK.

GOBERNANTZA KOOPERATIBORANTZ

Udalaren funtzionamentuan aldaketak egingo doguz alkarlana sustatzeko. Zinegotzi guztiok izango dogu arloen ardurak hartzeko aukera. Informazino Batzordeak gaien lanketarako guneak izango dira, adostasuna bilatzeko guneak. Maiztasun erregularra izango dabe, planifikazinoa egin eta jarritako egutegia beteteko. Tokiko Gobernu Batzordea, orain dituan zereginez gain, talde politikoen arteko komunikazino gunea izango da, eguneroko arazoak eta gaiak aztertze foroa. Udal talde politikoe eta alkate eta zinegotziok jasoten dogun diru kopurua murriztuko dogu. Udaleko lanpostuen beharrak eta funtzioak aztertuko doguz.

Bestalde, udalaren erabagiguneetatik urrun ikusten dabe euren burua herritarrek gaur egun. Iradokizunak eta kexak entzun eta erantzuteaz

gainera, parte-hartze sakonagoa bilatu behar da, udalean hartzen diran erabagiak herritarrek eurenak balira lez hartu dagiezan. Auzoetan bilera irekiak egingo doguz eretxiak jaso eta informazino zuzena emoteko. Osoko Bilkurak arratsalde izango dira. Dinamika parte-hartzaileak jarriko doguz martxan, adituen gidaritzapean gai zehatzakaz hasi eta gai orokorragoetara zabalduz. Adibidez, lokalen erabilera planifiketako, aparkalekuen arazoa aztertu eta urtenbideak aukeratzeko, portu inguruko hirigintza aztertze, zentralaren etorkizunaz hausnartzeko, eta herriari buruzko gogoeta estrategikoa egiteko. Herriko alkarteen inplikazinoa bere bilatuko dogu, arlo desbardinak jorratze batzordeak eratuta eta egitura komunitarioak sortuta.



PUNTO DE PARTIDA Y DE ENCUENTRO

Cambiaremos el funcionamiento del ayuntamiento para fomentar la colaboración. Todas y todos los concejales podrán asumir responsabilidades de áreas. Las Comisiones Informativas tendrán una planificación y calendario para ser espacios de trabajo que busquen el consenso. Reduciremos el gasto en grupos políticos y miembros de la corporación. Analizaremos las necesidades y funciones de los puestos de trabajo municipales. La transparencia y la participación en la gestión municipal son claves. Haremos reuniones abiertas en los barrios. Los plenos serán por la tarde. Pondremos en marcha dinámicas participativas (locales municipales, aparcamiento, entorno portuario, central nuclear, reflexión estratégica). Buscaremos la implicación de asociaciones creando estructuras comunitarias en diferentes áreas.



Egiteko moduak asko baldintzatzen dau emaitza. Jentearen pentsaera eta izaera kontuan hartuta, danon parte-hartzea sustatuko dogu udaletik.

Herriko alkarteen

inplikazinoa bere bilatuko

dogu, arlo desbardinak

jorratzeko batzordeak eratuta

eta egitura komunitarioak

sortuta.

Lemoiz etorkizunerako eredu



Ingurumen krisiaren aurrean autosufizientzia konektatua

Larrialdi klimatikoa, krisi energetikoa, biodibersidadea... gaur egungo gizartearen erronkak. Erronka handiak, globalak, konponbiderako danon ekarpena behar dabenak, baita udalenak eta herritar xumeenak bere. Udalerriak, hurbileko baliabideak erabilia, ahalik eta autosufizienteena izan behar dau arlo guztietan.

Energiari jagokonez, kontsumoa murriztuz eta energia barriztagarriak tokian ekoiztuz, komunitate energetikoa eratzeke bidean udal eraikinetan plaka fotovoltaikoak instalatuz eta autokontsumo partekatuko taldea sortuz.

Garraioari jagokonez, kotxe partikularrari alternatiba erakargarriak eskainita, oinezkoak lehenetsita, garraio publikoa hobetuta, eta kotxeen erabilera partekatua sustatuta.

Hondakinen kudeaketan, autokonpostajea eta konpostaje partekatua bultzatuko dogu hondakin organikoa eta inausketena herrian bertan kudeatzeko.

Elikaduraren arloan, tokiko ekoizpena eta bertako kontsumoa bultzatuta, lehen sektorea lagunduta.

Urari jagokonez, herriko ur baliabideen egoera aztertuta eta zainduta, URArekin dogun hitzarmena martxan jarrita.

Biodibersidadeari jagokonez, gure herriko egoera aztertuz eta ekintza plana eginez, erakunde publiko eta jaube pribaduakaz alkarlanean basogintza eredu aldatzeko urratsak emonez, urigintza planetan biodibersidadea babesteko neurriak hartuz.



Euskera, hezkuntza, kultura eta kirola

Euskeraren erabileraren egoera hobetzeko bi arlotan egingo dogu lan: euskeraren erabilera normalizatu udalean (lehenengo berba euskeraz, euskeraz egiteko eskubidea bermatu, barruko komunikazinoan, beste erakundeekiko komunikazinoan) eta euskerazko kultur eta aisialdi eskaintza hobetuta.

Udal Hezkuntza Kontseilua sortuko dogu herri proiektu hezitzailea lantzeko, euskeraren erabilera sustatzeko, tokiko curriculum jorrazteko, eskolaz kanpoko eskaintza hezitzaile eta integrala lantzeko, Haur Eskola zabaltzea aztertzeke, eta batxilergoko ikasleen garraioa aztertzeke.

Kultur bilgunea sortuko dogu kultur ekimenak modu integraduan antolatzeke: kultur agenda bateratua, jaiak, arte ekimenak, aretoaren beharra.

Kirol bilgunea sortuko dogu frontoien erabilera hobetzeko (txanda hartzeko sistema, erabilera desbardinak uztartu), beste kirol batzuk sustatzeko, emakumeen presentzia areagotzeko.



El Plan General de Ordenación Urbana

El PGOU es sin duda uno de los temas cruciales de un ayuntamiento. Aunque su redacción se inició en 2016, en los últimos cuatro años no se ha tomado ninguna decisión oficial. Además de definir las necesidades urbanísticas del municipio a medio plazo, el PGOU debería implicar una reflexión estratégica a nivel local.

Tras conocer la situación real en la que se encuentra, analizaremos las posibilidades de su reorientación para dar respuesta a los retos que tenemos de forma transparente y participativa (crecimiento equilibrado, medio rural, aparcamientos, zona portuaria, entorno de la central...)

Política municipal de impuestos

Se han modificado algunas ordenanzas fiscales en una buena dirección. No obstante, estudiaremos hacer cambios para fomentar el alquiler de vivienda, mejorar la situación de personas vulnerables y hacer los impuestos más progresivos.



**Iker
Casanova
Alonso**

Bizkaiko
Ahalduen Nagusirako
hautagaia

Candidato
a Diputado General
de Bizkaia

Bizkaia 2023-2027

BIZKAIAREN ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTU IRMOA
EGITEN DUGU, ETA, IKUSPEGI HORI EGIA BIHUR DADIN,
ANBIZIOZ ETA IKUSPEGI INTEGRAL BATEKIN LAN EGINGO
DUGU. HORRETARAKO, LANA LAU ARLO NAGUSITAN
EGITURATUKO DUGU: ENPLEGUA, EKONOMIA SUSTAPENA,
INGURUMENA ETA POLITIKA SOZIALAK.

Bizkaia tiene que ser un territorio que se reinvente en torno a un modelo económico basado en la industria inteligente y sostenible, apostando por una economía industrial y del conocimiento; se debe vertebrar a través de un sistema de comunicación centrado en el transporte público, y reorganizarse urbanísticamente para alcanzar un diseño del territorio que combine armónicamente la actividad económica y la residencial, de tal forma que ofrezca a sus habitantes calidad de vida, un medio ambiente recuperado y la posibilidad de desarrollar proyectos vitales en un entorno de prosperidad, igualdad, justicia, cultura e inclusión.

Bizkaia bidezkoa,
aurrerakoia, feminista,
ekologista, euskalduna...
eraiki nahi dugu!



Reindustrialización inteligente

Tras una etapa en la que la industria parecía haber “pasado de moda” en favor de las economías de servicios, hoy se vuelve a reconocer de forma unánime el valor de una economía industrializada. La industria produce valor añadido. Los países y zonas industrializadas son más ricas que el resto. El empleo estable y generalmente bien remunerado que genera la industria es un factor de cohesión social. Bizkaia necesita recuperar la actividad industrial. Por eso hemos de apostar por una industria moderna, avanzada, tecnológica y que, además, incorpore la atención a factores sociales y medioambientales.



Politika sozial indartsuak eta zaintza ekosistemak

Pertsonen bizi baldintzak hobetuko dituzten politika berriak behar ditugu. Gaur egun, zaintza sistemako baliabideen hornidura eta antolamendua errepasatu besterik ez da egin behar defizit handia dagoela egiaztatzeko (bai epeei dagokionez, bai ereduari dagokionez) eta pribatizazioa gero eta handiagoa dela ikusteko. Zaintza ekosistemak tokiko esperientzien garapenean oinarritzen dira, arreta eredu pertsonalizatuagoak sortzen laguntzeko, eredu malguak eta komunitarioak, jendarte berrikuntzatik pentsatuak, etxeko arreta bultzatuz eta jendarte eta osasun sistemen arteko sinergiak hobetuz.

Maite duzun Bizkaia

EGINGO DUGU.



**Iker
Casanova
Alonso**

Bizkaiko
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidato
a Diputado General
de Bizkaia

*Zurekin batera,
inoiz baino gehiago
izango gara.*

Zuk bezala, Euskal Herria Bildun herri hobe batekin egiten dugu amets eta, horregatik, maite duzun Bizkaiaren alde egingo dugu. Aldaketak datoz, eta gure esku dago aukerak baliatzea. Belaunaldi berrien etorkizuna, osasun publikoa, adinekoen zaintza eta zaintzen dituztenen lan-baldintzak, enplegua, gure herrien etorkizuna, industria, bizitzaren garestitzea, etab. EH Bilduk konpromisoa eta konponbideak eskaintzen ditu. Jendearen ohiko arazoei aurre egiteko konponbideak eta hori posible egiteko konpromisoa.

ehbildu

🐦 @Iker__Casanova

🌐 bizkaia.ehbildu.eus